

FUNTSEZKO JARDUERAK

Edozein negozio-eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak edo erakundeak ondo jardun dezan. Funtsezko baliabideak bezalaxe, funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrek eraikitze eta diru sarrerak lortzeko.

• Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure funtsezko jarduera, zerbitzu psikologiko eta admisitratibo-juridiko batez gure bezeroak hornitzea da. Besteak beste hor dago gure enpresaren gakoa eta besteengandik bereizten gaituena. Profesionalak izango dira, uneoro, gure bezeroekin harremanetan daudenak; eta gainera, laguntza “erabatekoa” izango dela ziurtatzen dugu. Hau da, konfinamenduaren ondorioz sor daitezkeen arazo asko eta askori irtenbidea emango diona (laguntza psikologikoa, administratiboa eta juridikoa).

Edonola ere, garrantzia handia dute gure enpresan sare sozial eta webguneez. Horiek baitira gure bezeroekin harremanetan jartzeko kanal nagusiak. Horrela, online zerbitzua kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere, zaindu eta bultzatuko dugu behar duen garrantzia emanez. Hala ere, gure zerbitzua “presentzialki” jasotzeko aukera ere badago. Horrela, gure funtsezko jardueretako bat gure bezeroekin izango dugun harremanaren kalitatea zaintzea da. Horretarako, guk enpresa bezala, helburua lortutakoan, gure bezeroekin harremana ez etetea izango da gure erronketako bat.

